


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

158n. Zenbakia Abendua
Gabonilla
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



BILBAO'KO PORTU BARRIA

- KONDAIRAZ OSPETSUA.
- ITXAROPENEZ ONURATSUA.
- ARTU-EMONETARAKO EGOKIA.
- EUROPA TA MUNDURAKO BIDE ZABALAK DITUANA.
- EUSKALERRIAREN IKUSPEGI BARRIA.

JERUSALEM

Jerusalen. Uri baten izena. Millak urteak dituan alde zarra eta oraintsukoa dan alde barria dituan uria. Zenbat berba-bide emoten dauan aspaldiko urteetan! Eta zenbat guda-bide gizaldien joanean. Izenaz bakea adierazten dauan uria, Jaungoikoaren seme-alabak bake-giroan batzeko sortua izan dan uria, guda-uri biurtu jaku.

Dabid

Dabid erregea izan zan uri onen sortzaille.

Eta sortzailleak, uriburua leiñu baten lurretan izan ez daiten, bakea egitearren, basamortuan sortu eban uria.

Asieratik etorren ba, bakearen billa uri santu au.

Jauretzea

Uri onetan eta otoitz-etxe izan zedin, Dabid'ek jauretze edo Jauna gurtzeko etxe eder bat egin nai izan eban, baiña Salomon bere semeak bete eban gurari ori.

Eleiz ederra egin eban Salomon'ek, bere aitagiñerraba zan Fenizia'ko Hiran'ek emon eutsozan zedro aundietatik egin eban zura gai zala.

Gero, Israel erbesteratu ebenean, jauretzea be erre egin eban, baiña barriro egin eban, erria bere lurraldera biurtu zanean, jauretzea, Esdras eta Zorobabel orretarako arduradun zirala. Gero Herodes Erregeak osotu eta ederdu eban.

Jesus il eta berrogei bat urte geroago, erromatarak austu eban jauretze au eta arrezkero ez da geiago bir-eraikia izan. Zori txarrez, jauretzea egoan lekuan Arabiarren Mezkita ederra, Aksa, dago.

Antxiñako jauretzearenik ezer ez da geratzen, Erosten edo Negarren Ormea baiño. Antxe egiten dabe negar egunero israeldarrak, euren jauretzea eta erria dagozan lez dagozalako.

Arabiarrak

Israeldarrak, edo, obeto esateko, Juda'tarrak munduan sakabanatuak izan ziranean, arabiarrek artu eban Lurralde Santu ori.

An eraiki ebezan euren otoitz-etxe edo Mezkita ederrak. Antxe dago, Isaak erailteko eroan eban Moria mendiaren gaiñean, arabiarrek Meka'tik urriñen dauken mezkita. Andixek igon ei eban zerura Maoma'k.

Garrantzi aundia dauka ba, arabiarrentzat, edo obeto esateko, musulmantzat, euren toki santua, garrantziz Meka'ren urregoa danak.

Erdi-Aroa

Kristiñauak ezin ikusi izan eban begi onez erdiarogan euren leku santuak jentillen menpean egotea. Gaiñera ara erromes joaten ziran kristiñauak be ez ziran izaten ondo artuak.

Orregaitik, San Bernardo aurrelari zala, Kurutze-Gudak gertatu ziran Lur Santua barriro eskuratze-ko. Eta lortu be bai. Jerusalem Kristiñauen menpean geratu zan, urte batzutarako beintzat. Gero, Aginterri aundiak sortu ziranean, olakoen menpera jausi zan.

Palestindarrak zer diran? Judatarraz eta arabiarraz enda beratakoak eta lurralde aretan lenengo jabetza izan ebena, antxiñako Filisteoen ondorengoak. Oneik lurra euren ei dabe, lenagoko jabeak diralako, Israel'darrak, oster, Jaungoikoak eurai eskiñi eta emondako lurra dalako.

Gaurko giroa

Jerusalen, bakearen uria, gaur guda-giro bizian bizi da, erlejiño-girokoa eta politika-girokoa dan giro larrian. Iru erlejiño nagusiak nai dabe Jerusalem uriburu lez: Kristiñauak, musulmanak eta Juda'tarrak. Eta guztiak Jaungoikoaren izenean, baiña bakerik egin eziñik.

UMETXU BAT IL EBENEAN

Izakeriaren ondorenak

Zori txarrez, aspaldion bein eta barriro arri-tzen gaitue izakeriaren ondoren diran eriotza edo erailketa mingarriak.

Gure gaiñetik agintaritzza gogorra egoanean, eta euskalerrian ezelako eskubiderik onartzen ez zanean, atsekabe-giroa sortzen eban izuke-riak, baiña gaur, erri-agintaritzaren bideak billatzen diardugun sasoi onetan, askoz min-garriagoa gertatzen da. Ez dogu nai olako ilke-tarik, erdi-aroko jauntxuen bidea dirudi. Oñaztarrak dirala edo Ganboa'tarrak dirala, beti erritarrak ilten eta kalte izugarriak egiten.

Umeak

Baiña gure atsekabe ori mingarragoa izaten da ilketa ori errubako umeen mundura sartzen danean. Orrelan izan da azkenengo ekiñaldi orretan.

Erandio'n illetea izan zanean, giro benetan larria agiri zan. Umearen amak ez eban agertu parkatzeko guraririk, umea il ebenak be erio-tzaratuak izan daitezcan zan bere guraria.

Eta politika-alderdiak, betikoak izan ezik, gogor eta sendo gaitzestu eben ekintza ori. Eleizearen aldetik jokabide argia agertu zan illetan bertan.

Parkatu

Olako ekintza zakarrak sortzen diranean, ulertzeko gauzea da amaren biotzak parkatu-eziña agertzea, baiña biotzeko gorrotoak ez dau arazoa bideratzen, izukeria ta gorrotoa alkartzen diranean, gauzea geroago ta txarrago joaten da.

Iñoz entzuten dogu "parkatu bai, baiña aitzu ez". Esaldi au ondo be ulertu leike: Zelan aitzu

ama batek il dautsoen bere umea? Ori eziña. Baiña esaldi orregaz, erantzun bardiña emote-ko erea itxaroten dagoala esan nai ba'da, orduan, ez da egia lenengo zatia, "parkatu bai".

"Senideak", ekintza

Espetxeetan dagozenen senideak alkarte bat sortu dabe "senideak" izena daroana.

Alkarte onen elburua espetxeratuak Euskalerrri barruko espetxeetan izatea da. Errazoizko elburua, benetan. Eta ez bakarrik errazoizkoa, eskubideen eta legeen barruan dagoana be bai. Baiña orretarako legeak aita-tzen ba dira, izukeria alboratzeko zergaitik ez dira aitatzen. Gauza bi orreik errez nastatzen dira.

Erri-agintaritzaren bidea

Erri-agintaritzaren edo demokraziaren bidea artu dau gure erriak. Egia da gauza guztiak ez doguzela ontzat emoten, urrik be ez! Baiña bide ori artu dogu arazoa bideratzeko eta orre-ri jarraituko dautsagu, bai autobidearen arazo-an eta bai izukeriaren naiz beste edozein arazo garrantzitsuren bat agertzen danean.

Erri-agintaritzaren bidea esaten dogunean, alkar-izketearen bidea be esan gura dogu.

Orregaitik, guztion eskaria da, izkilluak eta edozelako ilketak alboratu eta alkar-izketearen bidera sartzea.

Ortik etorriko dala uste dogu gure erriak ain bearrezkoa dauan bakea. Ortik baita, gure lan-gintzak bear dauan erbesteko laguntza. Danerako egiten dausku kalte izukeriak eta iraultzarako zergak.

GUN GAZTEA

GUN GAZTEA

Bai ur dogula, ene, negua.
Erigun guna ba da mangua
izotz asi barriek jota.
Ain gozo gendun otzak daroa
illun izurretan itota.

Eta ain argi zan egun eldua
ba dirudi bai lore uldua
noiz orduak galdu bildurrez,
ederrenaren ostroa
–eki gorien laztan bakoa-
illunak igar oi dauan lez.

Ur danean izotzen diadarra
astintzen gure bion bularra
ez dogu otzik izango, ez.
Gun gazte barri baten zirrara
izango baitogu arimara
gure odol ain zaarren ordez.

Zenbat urtez gaitun Jaunak bero!
T'umoturik dagozan eskero
gure azurrak lotarako
zer dala ta otzik eta bildur?
Magal zabal daukagu ama lur
bion betiko berorako.

TXALUPAKO ZAARRA

Txalupatxo zaarra, milla poz t'izu
jasana zarana. Gaur ba dirudizu
balea zaar baten saiets-azur pilla
olatu gaiztoek ondartzara illa.

Zenbat eguzkiren aintza ikus dozun
goizetan uainen musukari lizun
ta zenbat izarren ausarkeri ixilla
bular urdiñetan lo gozoen billa.

Ur ertzean zaran ene txalupa zaar,
ezingo ba ikus arrañen zerutik
agorrek baitautzu arnasea ito.

Legor zukinean, bateltxo ain bakar.
Gaur, ez poz, ez izu. Sustrai gazi barik.
Aparren muxuge il zara betiko.

ARBOLA PILLOA

Gure egunen artean –arbola pilloa-
aspaldi daukagu erio gure zai.
Maltzurkeriz bete illundu daroa
oyan barru oro: itzal eta tantai.

Eroan andiko egurgin gaiztoak
ebakiko gure adar ta garria
eta, banan-banan, danok berak joak,
utsera joango gure gun gorria.

Zartada gogorrez zigortuko gaitu
iradu gabeko eraille maltzurak:
aritz jayo-barri, arte zaar ezkurtsu,
dana iruntziko argi bako lurak.

Ta oyan baltzean irotuko yaku
ametsen enborra eta –adarrak bako-
txori-kabi-leku izango izan gu
izar begipean ilda betirako.

NEGUA

Zein urbil zaitugun, ene lagun,
makilla biurri, bizkar astun.
Urtaro zatorkuz –buru zuri-
azurren giltzak astintzen guri.

Ez dozu ikusten zugaitz ori,
adar eri, ez orri, ez txori?
Biotzik gabeko agure errudun,
bizia ken dautsazu gunik gun.

Gure otzen barri ba dakizu
t'ez eiguzu, arren, geiagotu
ez dakiguzan otoitzak izotz.

Zugaitz eria lez gagoz otz-otz
ta bearko zenduke ulertu
zer dala ta gagozan ain izu.

JAUNGOIKOAREN BILLA

MIGEL UNAMUNO

Entzute andiko Bilbo'tar filosofo onek Jaungoikoari buruz onela itzegiten dau:

"Buruak ez, biotzak beartzen nau Jaungoikoagan sinistera.

Jaungoikoagan sinistea lenengo eta aurren Jaungoikoaren egarria, Jaungoikoaren bearra, nabaitzea da.

Jaungoiko barik ezin bete dan zulo edo utsune andi bat somatzea... Jaungoiko ba-dala nai izatea.

Nik emen neure barruan beti bizitzeko gogo bizi bat daukat... Gorputza iltzean ezereztu egiten ba'gara gizonaren bizitza fantasmen jira-bira goibel bat, besterik ez da".

ALBERTO ONAINDIA

Markinako abade ezagun onek berak idatzitako liburu batean gertakari polit au edesten dauku:

"Egazkin baten ninoan jesarrita liburua eskuetan neure abade otoitzak egiten.

Nire ondoan 22 urte inguruko gazte bat jesarri zan. Ipar-amerikarra zan.

Laster egin giñan lagun... Nire otoitz liburuari begiratzuz itandu eustan: "Zer da ori?"

Eta nik: "Otoitz egiteko liburua".

Eta berak: "Zer da otoitz egitea?"

Eta nik: Jaungoikoarekin berba egitea".

Eta gazteak arriturik: "Baiña zuk Jaungoikoarekin berba egiten dozu? Zelan da ori?"

Eta nik gazte jator aren burua argitu nairik esan neutsan: "Nik ez dot gorputzeko begiekaz Jaungoikoa ikusten, baiña bai fedearen bidez".

Eta gazteak: "Orain gitxiago ulertzen dot"...

Eta nik fedea edo sinismena zer dan onela erakutsi neutsan: "Begira, guk egazkin gain onetatik ikusten doguzan etxeak, bideak, zubiak eta abar... gizonak egiñak dira... Baiña itsasoa, eguzkia, mendiak eta abar gizonen eskuek ezin

dabez egin... Ara, gazte, gure egazkin onek orain istripu bat izango baleu, biar egunkarietan iru-lau lerro jarriko leukiez, esanez: egazkin istripu bat izan da, alako orduan eta alako lekuan, eta ainbeste il dira, eta kito... Gu ez gara ezer. Gizonaren txikitasunak, Jaungoikoaren anditasuna ezagutzera garoaz... Eta geiago be esango dautsut, zu arriturik itziko zaituena: Jaungoiko andi ori ain ona da, gugatik ume txiki bat egin zan...".

JAMES-BERSON IRWIN

1971-garren urten illargira joan zan lenengo gizonak, astronautak, au edesten dauku:

"Illargian igaro nebazan orduak nire bizitza guztiko oroigarrienak izan ziran, Jaungoikoa nire ondoan nabaitzen nebalako... Gizona, zenbat eta lurretik gorago, ainbat eta Jaungoikoagandik ondorago ikusten da. Illargian nengola Lurra-Ludia kanika baten antzeko txiki ikus-teak, biotz eragin andia egin eustan...

Gizona gorputzez txikia da, baiña espirituz oso andia...

Illargitik orain gu bizi garan Ludia ikusiz, pentsatu neban: ala ikusiko dau Jaungoikoak gu bizi garan Ludia, eta onek biotzean sentipen sakona emon eustan"...

Irwin astronautak beragaz aldean Biblia txiki bat eroan eban, eta Illargian egoala 120-garren salmoa irakurri eban: "Nire begiak mendi santuetara jasoten dodaz. Andik etorriko jat nik bear dodan laguntza".

Ludira, zorionez, jatsi zanean, Jaungoikoari eskerrak emon ondoren, au esan eban: "Ni Illargian egon naz, baiña Jaungoikoa gu bizi garan Ludian egon zan. Ni kristiñau naz, eta sinisten dot, orain 2.000 urte inguru Jesus Jaungoikoa Ludira etorri zala, eta orain be guri laguntza emoten gure ondoan daukagula".

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

ERRIGINTZA

GUDARIEN EGUNA

Urrilla'ren 13n. egunean, gudari izandakoen eguna ospatu izan genduan Azpeiti'ko Loiola'n. Egun pozgarria!

Amaikak aldean eldu gintzazan gu eta, ordurako, beterik egoan Loiola-ingurua.

Amabigarren orduan izan genduan Meza Santua, Iñaki Deunaren jaiotetxea zan lekuan josulagunak daben Jauretxe ederrean. Bete-beterik egoan oraintsu ederkiro barriztauriko elizea eta, siñismenez sendo diraugula erakutsi eyenduan, guduan il izan ziran lagun eta arrezkero joan yakuzan gudari lagun arimen alde, otoitz eta abestiz.

Itsasalde zaildian (batalloian) guere mendi-tontorretan, lugana-zulo ta agerretako burrukaldietan lagun izandakoak bere agurtu ta besarkatu izan genduan alkar. anaia-maitasunez eta pozkidaz: baiña, arrezkero urteetan askok apur egin izan dauskue bizitza obarako.

Oraintsu joan yakun karmeldar Akesolo 'tar Liño be. Geure zaildiko lekaidea genduan: eta, au baiño leentxuago il ziran Lon Aba, karmeldarra au be, ta Jauregi'tar Erramun, abadea. Irurok ziran, ba, elizgizon zintzo ta abertzale sutsu, gudu anker aretan gure zaildiko mutil zintzoen zuzpertzaille ta arimen zaindari.

Amaika mutil ederreri emon eutsien poza ta askespena, gure mendietan, metrailla ta odol-artean, bizitzako aldirik ederrenean menperatzaille ankerren berunezkurrez edo lerkai z ebagitako bizitzeari. Jainkoak beukoz, guztiak bere egoitza aintzatsuan.

Guduan ez dala. (ezeze) eritegietan, atxillo-esparruetan eta espetxe zikiñetan jasankide izandakoak bere ba-ziran banaka bat.

IRAKURLE: 1. ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU " TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN IZENA EZARRITA COLON DE LARREATEGI 14, 1`ra. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!

2. IDAZTEN BA-DAKIZU, IDATZI, LANAK URRI DATORKUZ-ETA. ESKERRAK BARRIRO.

ZUZENDAR ITZAK

Urte guztietan lez, antxe agurtu genduan alkar Bengoa, Mungi ko txistularia izan zanak eta urte betean eriofetuta euki ta bost urtez espetxerik-espetxe erabilliak be.

Larogei urte beteta dagoanarren, gizon sendo ta osasuntsua, egundo ba-da.

Gudari izandakoez ganera. gazteagoak bere, arein emazte ta sendietakoak be, asko izan ziran jai atan.

Tamalgarriena baiña, leenago, gudari-egunetan agurtzen genduzan batzuk, bizirik eta onez dirauenarren, orain ez dira agertzen gure artera.

Ez ete-gara, ba, guztiok, Sabindar JEL-tzaleak? Ikustekorik ete-dau, ba, aberriaren guduan ain alkartuta ibilli izan eta, orain zaartzaroan, gizon batzuen erre txar eta aditu eziñakaitik gu, aberriaren bizia ezkiñirik geure mendi ezeak izerdi larriz eta gazte-odolez gorritu izan genduzanok saminkiro baztertzeke?

Begoz etxe zuloetan egun larri areitan gugaz mendira igoteko koldarkeriz ezkutau edo iges egin eben ketok. Baiña, gu! Etsaiaren aurrean kikildu ez giñanok?

Ez gara, ba, abertzale, gizon batzuen besteen asmu okerreri jarraitzeke, Aberria askatu arte askatasun-bidean, arretaz eta bildur barrk jokatzeko baiño.

Ez beite moteldu, ba, gure anaitasunezko abertzale-tasuna, norbaitzuen buru-berokeri, alkar aditu-ezin eta setakeriakaitik.

Gu geu, Arana-Goiri'tar Sabinen irakatsien jarraitzailleak gara ta ez andigurako ta sabeltzaiñen adiskide.

Loiolan, bertan, aurretiaz atonduta dagoan eskepe ederrean izan gendun bazkaria.

Pozezko alkarrizketak bazkari-aldian eta, azkenean, Euzko Gudariak... eta Abendearen Ereserkia gogoz abestuz amaitu gendun anaiatasunezko jai ederra.

Eta adiskide ta gudari-lagun izandakoak besarkaturik, pozarren abiau gintzazan atxerantz.

AURRE-APRAIZ' EK

URIARTE JAUNA, GOTZAIN EREDU

Guztiok dakigu zelan Juan Mari Uriarte Jauna'ri Erroma'ko Aita Santuak emon deusan Eleizearen zeregiñ ardurazko bat: Bilbo'ko Eleizbarrutian Gotzain-lagun zaneetik Zamora Lurraldean Gotzain izenezko izatea.

Berak ixil-ixillik, bear dan lez, artu dau Lanbide-Nagusitza.

Gure Juan Mari gogo-jardunetan trebe ta egoki izan zan (da ta izango da astitrik euki ezkerro). Zamora, Soria, Segovia, Avila, Gaztela'ko errietan entzute andia eukan.

Bere irakaste sakon ta zabalagaitik, bere biotzaren ontasun samurrak omen goren artu eban eta egin deutsoe.

Ni neuk bein, bera zuzendari dala, gogo-jardunak egin dodaz Berriz errixuko Lekaiame etxean.

Berak iñoskun esakune sakon bat marraztu neban eta buruan sartu. Bakez-bake norbera egoteko da, batez be urtedunak. Ona emen: "Garean gareana eziñean onartu, geiago ez garala jakiñik".

iBenetan aolku jakintsua! Zeozegaitik lortu eban psikologu mailla Lovaina' n.

Alan be, ez litzake ona izan aitatu dogun esakun edo aolku gogo goren-mailletan dagozanentzat.

94 urtedun Barrena'tar Aita Erasmo pasiotarrak beste gogo-aolku bat emoten dau: "Aurrera beti, gora biotzak. iDan-dana al dot indarra damosten Jesukristo Jainkoa'gan!".

Baita Aita Patxi'k be orixe esango eban.

Augaitik ederto diñoskue Teologu jakintsuek: "Gure Biblia-idazteuna jainkoz argitua da eta adorea ta itxaropena damoskuz.

Uriarte'tar Juan Mari Gotzaña bere ikaste sakonakaz eta oar-ikasiaz naikoa agertu jaku orain arte agintza ta jardun-

aldi egitezko ta berbazkoekin Eleiz-gizon abadiantzat onei aolku egokiak emonaz. Eleiz-gizon abadien euren lanetan ekin bear dabe.

Orrillaren 27'an 1991'ean Madrid'en, berbaldi ikaragarri bat egin eutsen abadeai. Esan eban guztiarena laburpena auxe da: Oraingo Eleiz-gizonentzat laguntza-ezaren egoera onetan Eleiz-Nagusi guztien alegiñak dira, barruz, ornidu, tresnatzeko. Gaiñez, agirikoz lagundu. Barruko laguntzak gogo-ezpirituzkoak, batez be, bear dabe izan. Ez dago, ez teoloji sakonik, ez atzalpen argizkorik ezpiritu gogotasunari tokia kendu leionik.

Gure Gotzain Nagusi Jaunak bost Ezpiritu-gogotasun zenbatzen ditu: 1) Uste onaren gogotasuna, ez baikortasunarena. 2) Zintzotasunaren gogotasuna, ez ondorenarena. 3) Otseiñaren gogotasuna. 4) Baretzu dan bakeginaren gogotasuna. 5) Jainko-gurariaren gogotasuna.

Olangoxe gai gogo-ezpirituzkoak irakasten ebazan gure Uriarte Zamora'ko Gotzain izendatukoak.

LETONA' K



IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

– Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliñaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuiñak asnaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak bairnena ernoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14, 2.ª, eskoia) egon bear

dabe. Abenduaren azkenerako ernongo da rnaikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urtarrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

– Sariak lau izango dira:

1.ª 40.000 pezeta.

2.ª 30.000 pezeta.

3.ª 20.000 pezeta.

4.ª 10.000 pezeta.

– Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena

OARRA: Epea urtearen azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

GABON ZORIONTSUAK 1991 / URTE BARRI ONA 1992

Gure munduak beti diardu
jira ta birak emoten
gizaldietan gelditu barik
berak dauana azaltzen;
aintziña asi ta gaurdanaiño
poz ta naigabez betetan,
batzuk etorritz, besteak joanez,
egoera au ez aldatzen:
bearrezkoa da jakitea
non asten dan-ta non amaitzen.

**

Gabon-egunak eldu jakuz-ta
danak dabilta galdezka:
"Askatxo ortan zer daukazun
esan egiguzu zuk, neska! !"
Emen dozue egindakoak
zeru ta lurak itzezka,
Jainko Aaltsu ta Betikoaren
Semea maitez-gaiñezka:
Orregatikan entzun guztiok
dakargun Barria ta ez kezka!!

**

Millakak urte igaro dira
ta ondiño igaroteko,
federik ez daben gizonentzat
orren zentzuna ez da agertzeko.
Egiñak dira gauza guztiak,
bera gizona argitzeko,
Egille bat bear dabe egiñak
euren zentzuna aurkitzeko,
fedean bizi bai diranentzat
Jainkoa sortuak sortzeko.

**

Emakume ta gizon guztiok
zabaldtu zuen biotzak,
guztiontzako egiña da-ta
EGIA, BIDE, ARGIA, ITZA.
Goazen kemetsu geure mundura
Bere izakeraz jantzita,
itxaropenez bete gaitezkan:
Illuna dago dizdizka!!
Gure Jainkoak gizon egiñaz
Jainkotu gaitu bakoitza! !

Zeuen dozuen:
KEPA AGIRRE'K

"EUSKAL ASTEA BIZKAIERAZ" EZ DAGO

Gure irakurleai eta beste euskerazale askori barri txar bat emon-bearrean gagoz: Aurtengo euskal-astea atzeratu egiten dogula, egunik ez illerik izendatu barik.

Oraingoz eziña biurtu jaku aste au eratzea, eta datorren urtearen barruan izango dala uste dogu. ZER gure aldizkari onetan agertuko dira egunak.

EUSKERAZALEAK

"GUERNICA" GERNIKA'RA

OIARTZUNAK

Noizean bein entzuten dogu eskari orren oiartzuna gure artean, Gernika gai dala egin zan lauki margotu eder ori Gernika'ra ekartekoa. Bear ba da orretarako egin zan lenengo eskaria, orain ogei bat urte dirala AGUR aldizkarian egin genduan, baiña orduan ez eban izan oiartzun aundirik.

Arrezkero noizean bein entzuten da olako eskariren bat. Azkenengo egin dauana, oraintsu il dan Roig idazle Katalunya'tarra izan da.

PICASSO'REN LANIK EDERRENETARIKOA

Picasso margolari ospetsuak egin eban lauki eder ori, ez bera abertzalea edo euskalzalea izan zalako, España'ko Erkalak orduan agiri zan gudari buruz zerbait egiteko eskatu eutsolako baiño.

Berari, Gernika austua izan zan egunak zirala-ko, jazokizun negargarri ori ikur lez agertzea bururatu jakon.

Eskertzeko gauzea da.

LAUKIAREN ELBURUA

Olako lan aundi bat egiten danean, elburua ez da bakarra izaten. Picasso'k be, antza dagoanez elburu bat baiño geiago izango eban: Erkalaren alde agertu, bakearen alde jokatu, erri zapalduaren egoerea salatu... baiña ez dakiguna da Euskelerira izan ete eban gogoan margotze ori egin ebanean.

Baietz esan lei, laukian agertzen dan irudirik aundiena ta agiriena giza-itxurazko zezena, Euskalerra sendoaren irudi dala esaten dabelako, margo-lanen aztertzaileak.

Ez dogu aiztu bear, laukia España'tarrak agin-dua eta España'tarrentzat egiña dala.

Ba-dago orduan Gernika'ra ekartea eskatzeko oiñarririk? España'tarrentzat eurentzat bai,

Gernika España dala uste dabelako. Ez ainbeste bear ba'da, euskaldunentzat, abertzaletasuna beste bide batetik doalako. Azken baten emon bear dabenak España'tarrak dira eta artu bear dogunak Euskaldunak.

Beste alde batetik, Picasso'k bere elburuetarako Gernika'ren irudia eta uri onetan izandako zapal-kuntza artu eban ezker, orrek be eskubide batzuk sortzen dauz gerkikarrengan.

GAIA

Laukiaren gaia, esandakoetan agertzen dan lez, gudea alboratzea eta bakea goratzea da. Gai ori agertzeko ezaugarri lez, erri austu bat agertzen da, zori txarrez Gernika izan zan egoera orretan egoana.

ZATIAK ETA TANKERA

Laukia ez da oso-osoan irudi-girokoa edo "figuratiboa", urrago dago kubismotik eta margotze utsetik edo abstraktotik. Neurritzi edo jeometri-irudiak daukoz, batez be iruki zokodia: Iru "tringulo" daukoz danaren azpian.

Baiña ez da osoan tankera orretakoa be, irudiak be agertzen dira: Giza-irudizko zezena, etxea erreten, emakumea umea eskuetan dauala iges, eguzkia...

ERTI-BALIOA

Picasso'ren laukiak gaur balio aundikoak dira, eta erti-aztertzaileak diñoenez, lauki au Picasso'ren lan guztien artean ederrenetarikoa eta baliorik geien daukenen artean sartu-bearrekoa da.

Datorrela ba Guernica Gernika'ra.

MARTIN'EK

URIARTE GOTZAINA JOAN JAKU

GOGORAKIZUNAK

Gaztetxua zala ezagutu neban Joan Mari Uriarte, Bilbo'n Gotzain Laguntzaille arnabost urtetan izan eta orain Zamora'ra joan jakuna. Gero Fruniz bere errirajoan nintzan abade eta antxe nengo-ala egin zan bera be abade.

Beragaz eta bere senideakaz izandako nire artu-ernonak beti izan dira senide-girokoak.

Asko poztu nintzan Gotzain egin ebenean, baiña ez arritu, orduan agiri zan giroan itxaroteko gauzea zalako bera izango zala Gotzain Laguntzaillea. Antonio Añoberos Gotzaina gaisotu zanean, berau izan zan Bilbo'ko Eleizbarrutian arduradun nagusi, gaur Gotzain dogun Koldobika Mirena Larrea etorri arte.

GOTZAINDEGIKO JOKABIDEA

Erri-zaletasuna, eta erlejiñoa edo fedea bera be bai, zati bat beintzat senditik dator. Eta argi dago Joan Mari'ren etxean abertzaletasuna bizi izan zala: Guda aurretik orduko errigintza giroan sartuta egoan aita eta euskaldunen artean oitura zan lez, eritxiz aurka-koak ziran batzui lagundu-bearra be izan eban, eta bizia salbatu be bai bear ba'da. Baiña "ondo egiñaren pagua, ate-ostean palua" orduan be bete zan. Guda-ostean aitak espetxeko bizitza garratza txastatu bear izan eban. Ezin ukatu, giro orretan, bere laguntza artu eban batek laguntza be ernon utsal.

Geroko urteetan abertzaletasuna autspean lez bizi zan, baiña bizi.

Joan Mari Gotzainak barruan daroa sendiko jokera ori, baiña ebanjalioaren eta fedearen argitasunaz osotuta. Orregaitik arlo onetan bere Gotzain-jokabidea oso egokia izan da Euskalerrirako. Ortik izukeriaren aurka agertzea.

Eleiz-ikuspegitik begiratuta, Batikano'ko 11 Batzar Nagusiak agertzen dauan eleiz-eredua Bizkaian beteteko benetako alegiña egin dau. Gotzain-Laguntzaille lez, Joan Mari'k, orretarako egin eta eragin egiten eban: Bizkai'ko Eleizearen Batzar Nagusia, Gotzain-ardurea ardatzetik atera eta Lurraldeetako Ordezkaritzak sortzea, alkarte eta talde txikiak sortu eta parrokiak indartzeko jokabidea, ekonornian eleizbarrutiak bere ordainketa egitera osooan eltzeko alegiña, Artzain-Lan-Batzordeak Eleizbarrutian, Ordezkaritza-aldeetan eta parroketan sortzea... labur esateko ardurakidetasuna abadeen eta laikoen artera zabaltzea.

ARRISKUA

Erriarenganako naitasuna agertzea beti izan da arriskugarri eta gaur be orrelantxe da, batez be euskaldunak ez diranen aurrean, naiz ernan naiz Madrid'en naiz Errorna'n. Eta Eleizearen barrikuntza egitean, aspaldiko atzeratze-giro onetan, oinkada ziurrak eta sendoak ernoteak be bildurra sortzen dau agintaritza-mailla batzutan.

Baiña olako jokabideen bildurra izan ezker, nekez egingo geunke aurrera errian naiz Eleizan, orregaitik, gaur edozeiñek, eta batez be Gotzainak, ausartak izan bear dabe, zurrak eta neurridunak, baiña ausartak.

ZAMORA'RA

Bizkaia'k sarritan izan dau itxaropena Joan Mari Gotzain Laguntzaillea Bizkai'ko Gotzain izango zala: Añoberos Jauna gaisotu zanean, Larrea Jauna etorri zanean, eta oraintsuago laster Saridun izateko sasora Gotzaina elduko danean.

Donosti'ko kasua antzekoa izan zan, eta Argaia jaunak bere gotzaintza itzi ebanean, Laguntzaille zan Setien jauna egin eben Gotzain. Baiña Bilbo'n ez da gertatu olakorik, Gotzaina berton bear izan danean, beti beste bat ekarri da. Eta azkenez, Zamora'ra bialtzeko erabagia artu dabe goragoko arduradunak.

Joan Mari'k ontzat artu dau erabagi ori eta joan jaku.

GAURKO ARDUREA

Gaur Eleizbarrutian dagoan kezkarik aundiena ez da Joan Mari joan izatea. Ardurarik aundiena, urrengo nor etorriko jakun da. Beste laguntzaille bat? Zelakoa? Erdelduna? Urengo Gotzaina izateko etorri daiteke albo-Gozain bat? Nor? Nondik? Ala Gotzain barri bat? Gotzain-eginbarria ezin daitekela diño, eta diranetatik zein? Lekaide edo erlijioso dan bat?

Zalantza aundi baten gagoz eta gure erritarrak une onetan eragin aundia euki bear leukee: Eskutitzak egin Gotzain barriaren izendapenean kideko izaten diranai: Nuntzioari, Gotzain-Bazkunaren Buru dan Sukia Kardinal euskaldunari... Ez dabela jaramonik egingo? Guk geure eginbearra bete dagigun, besteak be euren bete dagien.

AGURRA

ZER gure aldizkari onen izenean, guztion agurrik beroena, Joan Mari Gotzainari. Ba-daukagu zu ernan ikusteko itxaropena, gitxienez adiskide lez, eta baleiteke egunen baten Gotzain lez be. Agur eta gero-arte.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK



BIZIA EGINBEARRA DA

Ona, berez, eginkorra da, argia, beren izatez, dizdiratzaillea. Emen daukagu gizakumea, zer izan bear dabenaren, irudi garbala, eragin-korra. Burudun gizakumeak bere barnean daroa erantzukizunaren zentzuna. Berez, gorputzak azi ta zabaldu eginbear dau ta gogoak argitu ta zurtu ta erantzupendun biurtu.

Giz-adimenak bere aurrean daukaz lurra, itxasoa ta aidea. Iru puntu onek bear-bearrezkoak ditu bere bizitzarako. Ta ain zuzen bere sorreran lur ori menperatu ta giza-seme-alaba legez bizi toki egoki biurtu bear dau.

Lurra menperatzeko agindua, beren sorreratik dauka giza-semeak. Baiña zeure bekoki izerdiz ogia jango dozu. Emen dagoz ba begien aurrean lurra, almenak eta aginduak.

Lurra zabala da, ta berez, sasia, oparo, eskeintzen dau. Urre, zidar, arrolio, burdin arrikatz, burdin-gorri, ondo gordeta dagoz lurraren babesean. Lurraren sorreran edergallu guzti onek lurreko biztanleentzat itzi zituan Egilleak. Arrezkero gizonak landu egin bear ditu beren almenak.

Ume arotik asiko da ikastolara argibidea emonez buruari. Gure iparra, or, dago ta iparraldea, beti, laiñoz josita ba-dago, ez daukagu bizikera jatorrik. Gure izatearen egokitasunak, buru lantzea agindu egiten dau, gau eta eguna, illuna ta argia aldiaren esnatzaille diran lez, gizona, aurrean, daukan zuloan jausiko ez bada, argia biztuta, burua argituten ibili bear dau.

Lenengo arazoa da ba, giza-semearen argi almena kruzelu gaiñean, ondo, erabiltea, norbere erruz, amiltegira ez jausteko ta bizia menperatzeko.


Giza-semeak ba-dau beste almen zoragarriko bat, naimena deritxona. Bizia orniduta etorri zan gizaldira, baiña almen bikain onek lo-zorroan egozen gizonarengan. Ta lanak

eskatzen daben eran, biotza gerturik ez badago, ergelkeri ta zorakeri aundiak egiteko, arriskuan, dago giza-semea. Lanak eta aurrerapideak, ondo, eroan al izateko, buruak biotzaren laguntasun beroa ta neurritzkoa bear ditu.

Burua ta biotza, ondo, gerturik dagozanean, lurreko arazoei ekin bear jake. Biziak esaten dau, gizona ta bere almenak ez direla alperkerirako, biziak eskatzen dau lurra, itxasoa ta aizea menperatu bear direla osasuna indartze-ko... Bizi al izateko, biziak eskatzen ditu buru argitasun eratua, biotz sendotasun neurtua, ta eraren baten, euskal giroan esateko atxurra eskuan.

Giza-semea almen ederrez orniturik, alperrik etzan lurrera etorri... Aita baten seme-alaba legez, lege bardiñen barruan, bardintasun geiagoren bidez anaitasuna sortu bear da. Au da zeruaren deia, au da lurraren karrazia, bizia egi biurtzea gizadiaren onean. Uxa arrokeriak, uxa aundikeriak, uxa ezpata ta arma iltzailleak... ta betor bakezko bizia.

PAULIN



BIBLIA, JAINKOAREN ITZA, JAINKOAREN BERBEA

Jakintza Munduaren sorrerariño eltzen da gaur egun; baña, punto zero deritzan asiera orretan gelditzen da, aurrerago joan gabe. Gaur egun jakintzak egiten ez duena, ori Moises'ek egin zuen orain iru milla urte: Jainkoa dagoela punto zero orren asieran.

Bibliaren lenengoko bost liburuak, Moises'enak edo Moises'en garaikoak dira. Biblia osoak (72 liburu) Jainkoa eta gizasernearen arteko historia agertzen digu.

Bertan esaten digu mundua eta bertako izaki guztiak Jainkoak egin zituela. Historian zear Jainkoak aukeratu zuen Israel erria beretzako eta erri ori esklabutzatik ateratzeko, berriz, Moises.

Israel esklabu zegoen Ejipton'n eta Moises aukeratu zuen Jainkoak, erri ori andik ateratzeko rnariri aundien bitartez. Erernuan berrogei urtez bizi ondoren, eldu ziran Jainkoak agindu zien lurraldera, askatasunean bizi aal izateko.

Askatasun eguna gogoratzeko ospatzen zuten Pazko-festa.

f*

Moises izan zan Jesus'en irudi bat. Beronek askatzen gaituelako pekatu eta betiko eriotzatik. Ama-birjiñagandik sortu zan, Belen'en jaio eta Jerusalem'en iltzan gurutze batean josita. Eliza sortu zuan eta bere Maitasunezko Espiritua bidaldu zigun; Espiritu orreri esker deitzen diogu Jainkoa'ri Aita izenarekin.

Jainkoa ez da gauza bakarti bat. elkarte bat baizik: bakarra izanik, iru notin edo norki ditu beregan: Aita. Sernea eta Espiritu Santua. Gizakiak ere farnili batean sortzen dira: Aita, ama eta seme-alaba. Jesus'ek sorturiko Elizak ere farnili bat osatzen du: guztiok gera alkarren anai-arreba.

Israel eta Jainkoa'ren arteko artu-ernanak Testamentu Zaarreko Biblian daude, Jesus jaio artekoak. Jesus'ek bere ikasle- i agindu bat eman zien: Mundu zabalean berak erakutsitako Jainkoa'ren erreinua itzez zabaltzeko. Aiek itzez esandakoak ikasle batzuek idatzi egin zituzten eta idatzi oiek dira Testamentu Berriko Biblia. Baiña, idatzitik bakarrik ez da gure fedea bizi: Tradiziotik ere bai. Tradizioa zera da, Euskalerrian egin deguna Ageda'rekin (Santa oneri abesten diogu "usarioa galdu ez dedin"). "Usario" ori izango litzake Tradizioa.

"Eskerrik asko, Jauna / biotz-biotzetik".

*x

JAINKOAREN LANA

Fisikako Nobel-saria irabazitako Anthony Hewish jakintsuak onela zion Donostia'an 1988'an (El Correo Español-III-10):

"Zero pututik aruntzago? Gauza guztiak zergatik asi ziren

galdetzean, fisikak ez du erantzunik.

Zientzilari batzuk, neuk ere bai, gorengo maillako adimen bat bearrezkoa dela uste dugu... Jainkoa oiñarrizko dela pentsatzerira iritxi naiz...

Zientzian ez dago ezer ere neure sinisrnen personalaren aurka dagoenik".

BIBLIAREN ZAZPI EGUNAK

Gauza asko eta eder daude mundu zabalean eta guztien sorrera eta asieran Jainkoa dagoela diote Bibliaren liburu santuak. Berak egin zituela guztiak zazpi egunetan. Onela:

1.- Zeruak eta Lurra egin zitun. (Zeruak utzi eta Lurrarekin asiko da).

2.- Argia (eguna), urak eta legorra.

3.- Legorreko mndietan, belarrak eta arbolak.

4.- Eguzkia eta Illargia agertu ziran (laiño artetik).

5.- Uretan arraiñak, aidean egaztiak eta mndietan, piztiak.

6.- Guztiak prestatu ondoren, egin zitun gizona eta ernakumea, lurrez eta espirituz.

7.- Ez zuan ezer egin, gizonak zazpigarren egunean atsedena artzen ikasi zezan.

* * r

Igandeean lanari utzi eta atsedena artzen Moises'ek irakatsi zion bere Israel erriari. Orretarako Jainkoaren lan osoa sei egunetan banatu eta zazpigarrenean Jainkoa atsedena artzen ipiñi zuen. Jainkoak ez du deskansu bearrik; baiña erriak bai, bear zuen. Gaur egun aurreratu egin gera eta jende askoek larunbatean ere jai egiten dute. Garai aretarako igandean jai egitea aurre-rapen aundia izan zan, Bibliari eskerrak.

Biblia ez da zienzi-liburua. erlijio-liburua baizik. Gizaki eta Jainkoa'ren arteko ar-emanak ditu aztergai.

Literatur mnotak desberdiñak daude Biblian: pedagogi-gaiak, kontaerak, olerkiak, erri-oiturak, parabolak, profeziak, otoitz-gaiak...

Moises'ek eta beste idazleak ez zuten zientzia-libururik egin, baiña Lurraren sorrera berak esan bezelatsu gertatu zan.

Berak azpinnarratu nai izan zuena auxe da: Zerki guztiak, Uniberso osoa, baita gizakia ere Jainkoak egiña da: Gizakia lurra eta espiritua da eta bere sortzaillearen esanetara egon bear du. Eta zazpi egunetik bat, gutxienez, jai egin bear du. Jainkoak egiñiko guztia ona da berez baiña gizakiak okerra egin zuen asiera-asieratik.

Ori diñosku Kredoa'k: Sinisten det Aita aalguztidun zeru-lurren egillea.

ANES'EK

AJURIA ENEA'KO ITZARMENA

GUZTIAK

Ez da gauza erreza politikako alderdi guztiak bateratzea.

Guztiak bateratzen dauzan gai bat, Laterre-
Lege nagusia edo konstituziñoa da, eta mailla
beratan izan bear leuke, gure Araudiak be.
Legez orrelan da, baiña beteteko orduan ez da
beti agertzen bateratasun ori.

Baiña Laterri Legea ez da Jaungoiko bakarra.
Beste gauza asko dagoz, gizakiak garalako beste
barik, guztiok batera onartu bear doguzanak, eta
onein artean bat izukeriaren eta ortik sortzen
diran ilketa ta galtzeen aurka jokatzeta da.

Jakiña, arlo onetan be ez dira alkartuko izuke-
riaren alde dagozanak.

ZERTARAKO

Ajuria Enea'ko itzarmenera deia, gauza ego-
kia ta bearrezkoa zan, gure Erriari ainbeste kalte
egiten dautson izukeria alboratzeko, izukeri-
zaleak bakarrik dagozela adierazteko.

Dei orretara erantzuna emon eben alderdiak,
izukeri-zaleak izan ezik beste guztiak, oso
ezbardiñak dira eta batez be euren arten diran
pentsakerak ez dira alkartzeko modukoak, batez
be Euskalerrriaren nortasunari begira. Arlo orre-
tan bakarrik alkartzen garala dirudi: Izukeririk
ez dogula nai ziurtatzean.

MUGAK

Olako itzarmen bat izenpetzen danean,
mugak non diran jakitea ez da izaten gauza erre-
za. Esaterako au zan itzarmenaren arau bat:
ETA'gaz eta bere alde dagozenakaz, politikarako
artu-emonik ez izatea.

Baiña batzuk arau ori zabalegi artu eta ezela-
ko artu-emonik ez izatea ulertzen dabe, beste
batzuk, ostera, bere neurrian, eta politikakoak ez

diran arazoetan artu-emonak izan leitekezala
dabe uste.

Orra or, Leizaran'go autobidearen arazoan
izan diran eztabaida batzuren sustraia.

BA'DATOZ

Egunen baten, izukeri-zaleak eta euren lagu-
nak, izukeria izteko eta errigintzako arauetara
sartzeko guraria agertuko ba'lebe, alkar-izketa
aske izango litzake.

Eta Leizaran'go autobidearen arazoan, euren
jokabide estua apur bat zabaldu eta besteakaz
jokabide barri batera sartzeko gertu agertzen
ba'dira, jakiña, orretan be alkar-izketarako aska-
tasuna ez dago kenduta.

Zori txarrez, laster ikusi zan, emondako ber-
bea be, ez ebela gero betetu. Baiña jokabide
orrek urrengo ekintzetarako alkarrengan izan
bear dan uste ona kentzen dau. Eta gizartean
uste ona bearrezkoa da.

ITZARMENA AUSI

Alderdi guztiak alkartuta jokatzeta, bearrezko
gauzeta da, izukeria alboratu al izateko, orregai-
tik alegin osoa egin bear dabe alderdi guztiak
itzarmena ez austeko, alkartuta jarraitzeko; bes-
terik ezean, ezaugarri lez.

Errez sortzen da zalantza, ainbeste berba egi-
ten dan aldi onetan berbak zeatz aztertu ezker-
o, baiña alkar ulertzen alegiña egin bear da eta ero-
apen aundiagaz, asarre barik, gauzak artu.

Itzarmen orretan alderdi guztiak jarraitzeta,
gauza ederra litzake.

M.O.'EK

"CORCUERA" LEGEA

LEGEA

Oraintxe diardue Madrid'en "Corcuera"-legea deritxona aterateko asmoetan, eta esan lei lege ori ango Lege-Batzar edo parlamentuan onartua izango dala, egin jakozan aldakuntza batzuk, jeltzaleenak be bai, onartu ondoren.

Lege onen muiña, gitxi gorabera, auxe da: Poliziak, etxeren baten lege-austea egiten diarduela ziurtasuna daukanean, epaitegiko baimen barik etxe orretara sartu daitekezala.

ANTXIÑA

Lege orrek orain urte batzuk izan genduzan larrialdiak dakarskuz gogora: Zapalkuntzaren aurka egiten ziran ekiñaldietan, geienetan goizeko orduetan etorten ziran poliziak etxeak arakatzera. Zelako ikarea sartzan eben inguru guztian!

Eta orduan be etxeetara sartzeko epailariaren baimena bear zan, gaur lez, baiña ori sarritan ez zan beteten. Dana dala, ori eskatzeko eskubidea egoan.

Erri-agintaritzan sartu zanetik, etxeetara epailariaren baimen barik sartzea galazoten eban lege ori beteten izan da. Ez dakit beti. Baiña bete-bearrekoa zan eta erritarrak ori eskatzeko eskubidea eukan.

ARAZO BARRIAK

Orain, osteraz arazo barriak sortu dira, batez drogasaltzaileenak. Oneik, drogea etxe baten sartzan dabe eta an euren erara erabili ta gertatu gero saltzeko. Eta poliziak atea jotzen dabenerako droga ori ondo ezkutatu edo aurkitu eziñeko lekura jaurtiten dabe. Orregaitik eta antzeko beste ekintza batzuk be izaten dirala kontuan arturik, eskatzen da etxeetara epailariaren baimen barik sartu al izateko lege barri au.

Beste biderik ez ete dagoan elburu ori lortzeko, argi aztertu eta ikusi bearko litzake.

ELBURU ONA

Lege orrek billatzen dauan elburua ona da, zalantza barik. Gure gazteak, batez be, droga-bidera jausten diranean, arazo negargarriak, izaten dira sendietan, eta errietan, eta batez eurentzat, eta arrisku ori kentzeko eskaria, bizia da erritarrak geienan artean.

Droga-zalekeriaren aurka jokabide irukoitza da bearrezkoa: umeak eta gazteak gertatu zulo orretara jausi ez daitezkan, polizien bidez drogea zabaltzea galazo eta droga-arazora jausi diranak osatzeko bide egokiak artu.

ALDERDI TXARRA

Ba-dau orregaitiño lege orrek bere alderdi txarra: Etxeko barru-bizitzarako daukagun esku-bidea arriskuan jarten dauala, bildurra zabaltzen dauala, etxe-bizitzan izan bear dan askatasunari muga bat ipinten dautsola.

Arlo onetan barriro aitatu bear antxiñako polizien jokabideak zabaltzen eban bildur-giroa. Norkien duintasuna gitxitu egiten dala dirudi.

Zer esan azken baten? Askatasunari eta duintasunari mugak ipintea ez da errez onartzekoa, eta zalantza barik izango dira beste bide batzuk elburu on ori lortzeko. Ba-dauke or buru-miña izateko bidea gure politikariak!

LANDA-BARRI

ZER ETA ZELAN IDATZI

GAUZA ERREZA

Askok uste dau idaztea eta batez be euskeraz idaztea gauza gaitxa dala eta edozeiñek ezin leikela, orretarako trebeak izan ezik.

Eta ori ez da orrelan. Pentsakera ori euskereari kalte aundia egiten dautson gauzea da.

Idaztea gauza erreza ta pozgarria da, jatea naiz edatea dan bestean erreza ta pozgarria. Orregaitik euskera dakian edozeiñek. euskeraz egin leiken gauzea.

IRU ALDI

Idazteko eta euskeraz idazteko be bai, iru oinkada emon bear dira. Uste izan ez arren, lenengo biak gaitxenak:

- Gaia asmatu
- Zatieta eratu
- Idatzi.

GAIA ASMATU

Lenengo esan dogu. gaia asmau.

Askok esaten dauana da au: Nik idatziko neuke, eta pozik, baiña gaiak falta jataz, ez dakit zeri buruz idatzi.

Neuk agertuko dautzut bide errez-errez bat: Izparringia irakurten dozunean, sarritan esango dozu zeure artean: Emen diñoana egi aundia da eta geiago be esan bear leuke. Ori burura jatortzunean, asmau dozu gai bat.

Urrengo baten antzeski bat, pelikula bat ikusten dozu eta zeure buruari diñotsazu: Ez dago eskubiderik, indiatar gizajoak orrelan zapaltzeko. Orra or beste gai bat: Inditarren zapalkuntza, gure erriarena, alderdien arteko alkar-zapaltzea... zapalkuntza.

Eta olakoak milla.

ZATIETAN ERATU

Urrengo, esan dogu, gaia zatieta banandu.

Gai bat burura datortzunean, idatzi baiño lenago, laburpen bat egin bear dozu: Gai orreri buruz agertu nai dozuzan gauzak idatzi.

Esaterako. egin dagigun gaia alboratuak dirala eta diñozu: A) Nortzuk dira mundian alboratuak? 1) Erri txikiak. 2) Erri txiroak. 3) Banakako gizon makalak. gaisoak, atzeratuak... 4) Gure errietan, zar batzuk, urriñeko baserrietan bizi diran batzuk, etorri-barri batzuk...

B) Eta zer egin bear da alboratuai buruz? Zer egin bear dogu euskaldunak munduan alboratuak ez izateko...

Olako zati bakoitzean zati txikiagoak be ezarri leiz.

IDATZI

Eta or daukazu gai bat eratuta, zu idazteko prest, zer bear da? Besterik ez, laburpen ori aurrean dozula, urren-gorik urrengora idaztea baiño. Orrelan idazteak egundoko poza emongo dautsu, gero zeuk idatzia erriaren onerako dala jakiteak poz barria...

Ez zaite iñoz asi idazten, lenengo zeregin biak, gaia asmatzea eta zatieta banatzea egin barik. Kaltegarri izango jatzu eta idaztea itzi egingo dozu.

ONDO IDAZTEKO

Orrez gaiñera ondo idazteko, beste gauzatxu batzuk be artu egizuz kontuan. Gauzak esateko ere be aukeratu: bioz-miñagaz idatzi ala otz-otzean, kondaira lez; artu dozun gai ori azaltzeko, irudirik onenak aukeratu eta gero bizi-bizi agertu.

Idatzi ondoren, zeuk idatzia barriro irakurri eta zuzendu egizu. Beti aurkituko dozuz okerrak edo obeto esateko erak. eta orrelan irarkolara zure lana eroan bear dauanari laguntza aundia emoten dautsazu.

Beti zuzendu zeuk idatzia.

Ori, gaiñera. lan naikoa pozgarria izaten da.

Batez be idazle barriak diranak eta urteetan aurrera dagozen idazle trebeak beti egin bear dabe ori, eta or bitartean dagozanak egitea be ondo litzake.

BIZKAIERARI LAGUNTZEN

Ez aitzu iñoz be, euskereari emon zeinskion laguntzarik onena, idaztea dala: Izkuntza idatziak indar aundia dauko irauteko, lenago baiño askoz geiago gaur-egun.

ZER'en irakurlerik geienak Bizkaierearen alde dagoz. Orduan, bizkaieraz asko eta ondo idatzi bear dogu. Ez dogu izan bear, ez lotsa eta ez bildur, gure arerio diran jokabideak, Euskaltzaindiak berak ezarten dauzan arauak eta burubideak alboratzeko. Guk bizi egin bear dogu eta gu iltzera garoazan arerioa zein dan ba-dakigu. Idatzi ba, eta bizkaieraz idatzi.

Ba-dakizu, irakurle, gure ZER onetarako idazlanak urri datozena. Eta zeuk zergaitik ez dozu idazten? Erreza da, egin zeinke.

OLAZAR' EK

ARAZOAK

BIZIAREN ALDE

GAURKO ARAZOA

Aspaldion izan gara arduraz, noiz agertuko ete dan zarrak eta osatu-eziñeko gaisoa daukenak iltea eskatzen dauan ekintza.

Lentxuago be izan dira olako eskari batzuk gure artean, baiña girorik ez eukelako, oiartzun aundirik be ez dabe izan.

Baiña oraingo onetan bai, ainbat tokitatik entzuten da eskari au, "eutanasia" edo eriotz egokia eskatzen dauan oiua. Orain ez dira erdi alboratuta dagozan talde batzuk, gizon serioak osotzen dabezan lege-batzarrak baiño.

ALEGIÑAK

Gaurko mundu aurkazale onetan, iñon diran alegiñak egiten dira, alde batetik, biziari eusteko, gaisorik dagozanak osatzeko naiz gaiso-bidea bera alboratzeko.

Alegiñak baita, bizi garanok erosoago bizi gaitzean, bizitzearen ontasuna edo "kalidatea" arduraz begiratzen dala.

Eta olako alegiñak poztu egiten gaitue, geutzat eta besteentzat laguntza lez ikusten doguzalako.

AURKAKO JOKABIDEAK

Baiña aurkalaria dan gaurko mundu onek badaukaz aurkako jokabideak be, bizia indartu bearrean, bizia kentzeko diranak.

Esaterako, ainbeste ilketa alperreko egiten dauan, izukeria, edo oraindiño laterri askotan kendu barik dagozan errotzarako epaiak, edo gaisorik txarrena baiño txarragoa dan laterri askotako gose-giroa, edo drogea edo alkoola.

Alde batetik biziaren alde eta beste batetik bizia galtzen dabil gaurko mundua.

JAIO-BAKOAK

Iñok ez dau jakingo iñoz zenbat direan jaio baiño lenago, gizonen jokabide okerragaitik, eriotzea aurkitzen daben umeak, baiña bai, urtero milloiak dirala.

Sartu dira biziaren bidera, ba-datoz euren jokabiderako egitaraua aldean dakarrela, eta edo lekurik ez dagoalako, edo ama lotsa dalako, edo janaririk ez dagoala diñoelako, edo munduan gizaki larregi garalako eritxia dagoalako, edo beste zio askogaitik, jaiobako errukarriak eskuetan dauken bizia galtzen dabe.

Jokabide zuzenagoa litzake, sortu baiño lenago artu bear diran bideak artzea, bizia daukanarr kentzea baiño.

ERIO TZ EGOKIA

Orain biziaren aurkako jokabide barri bat asi da zabaltzen: Eriotz egokia esaten jakona.

Osagilleak alegiña egiten dabe gaisoaren bizia luzatzen, bear ba'da alegin larregi. Ordu batzuk edo egun gitxi batzuk bizia luzatzearren, zenbat neke ta min arrazoten jakozan gaisoari. Bere etxetik atera eta gaiso-etxeetara eroan, iñon diran tramankuluak, iñon diran osagaiak eta ebaketak... eta dana bizia apur bat luzatzeko. Or sarritan izan leiteke eriotz egokia itxaroteko kasua: Etxean, seni-deak inguruan dirala, bake-bakean, ilteko eskubidea.

Baiña eriotz egokia edo "eutanasia" esaten jakonak ba-dau beste urtenbide oker bat: Osatzerik ez daukan gaisoari, berak eskatuta edo eskatu barik, eriotzea ezartzea. Ez da bardin bakean ilten iztea eta ordua baiño lenago eriotzea ezartea. Jokabide bildurgarria litzake au.

GAM IZ' EK

ERRUSIA TA ERKAL-ERRIAK

Zatitu ta sakabanatzen asi dira, Komunismoa ia lur jota dago. Iraultzaren ondoren porrot egin dau, eta Boris Yeltzin eta Korbaxok garaille. Yeltzin batez bere. Orain lagunak dira. Geroko baten? Ikusteko.

Errusiak guztitik lur-zati geiena dauko; eundik irurogeta amasei (%76) inguru eta biztanlez be ia bardin. Agintez politika arloan legebatzarrean 52 ordezkari izango ditu. 20 - 32, eta beste 12 erkal-errian 20'na bakotxak. Letoniak, Lituaniak eta Estonia'k ez dabe parte artzerik, euren askatasuna lortu dabela-ko.

Militarrak, Komunistak geienak, esan lei galdu dabela. Politikan eta gudarostean Boris eta Gorbatxok oraingoz irabazle. Lerki atomikoetan edo atomik indarrean erkal-erri guztiak Errusiaz batera, uste da esku artuko dabela. Indar au guztiz gitxiagotzeko asmoetan dabiltz, ekonomiaren aldetik txarto, oso txarto dabiltzelako. Zeruko guda tresnetan be, orretan bere diru asko doala-ta, bardin dabiltz; dana izteko asmoz.

Ekonomi arazoa da txarrena, ta urte askotarako izan be.

Emen Letonia'k, Lituania'k ta Estonia'k be Errusia'ren menpean urte batzuetan jarraitu bearko dabe.

Errusia'tik artu daroe, lurruna, gasolnea, arri-oleoa ta abar. Errusia'tik geien baten j atorke dana.



She rardoud-.e loganbuille ono irungo du latemi-urteI'o arte-e monetaruko.

Laterri Batuetatik eta Europa'tik diru laguntza gitxi artuko dabe Errusia barruan gauzak geiago zuzendu arte.

Laterri oneik bestalde, Industri-gaietan eta jakintz arloko laguntzetan prest dagoz lenbaitlen asita Errusia osoari laguntasun ugaria eskeintzeko.

Boris Yeltzein eta Korbaxo'ek porrot egi-ten ba dabe, ludi osoarentzat kalte izugarria izango litzake.

Laguntasuna ba oso premiñazkoa da. Janak be bialdu bearko jakez, datorren negua gogorra ta otza izan leitekkelako. Ta negua urrean dogu.

ARREGI'TAR JOSU'K

GUDARITZA/S OLDADUZKA

BEAR ETE DA?

Soldadutzaren arazoa geroago ta biziago agertzen da gure gizartean eta aztertu-bearreko arazoa da au.

Oiñarrian gudaren arazoa da, gudarik ez ba'litz izango, soldadutzarik be ez litzake bearke, baiña zori txarrez, gudaren bildurra ez da kendu gizartetik.

Kalte aundiak datorkoz ortik gizarteari: Gosez bizi diranakaz janariak eta aurrerapena alkar-banatzeko bear litzakezan ondasunak gudetarako izkillaak gertatzen eralgiten diralako. Eta zelako eralke-tak egin be! Sinistu-eziñeko gauzea.

ZELAKOA

Gudaritza bearrezkotzat joten ba'da be, era asko dagoz gudarostea eratzeko: Adin bateko gazte guztiak orretarako beartzea da era bat. Gudaritza, erri-laguntza lez artzen da. Eta lanbidedun gudariena, soldaduen, da bestea. Onei ordaindu egiten jake eta beste lanbide askoren antzeko bat litzake ori be.

EUSKALDUNAK

Arlo onetan beste arazo bat litzake, euskaldunak gudaritza egiteko, euskaldunak ez diran gudalburuen menpean izan bear daben. Lenagoko aldietan ez zan orrelan.

Antxiñako gudariak, eta antxiña diñogunean orain eun eta berrogei ta amar urte dira, gudari euskaldunak Euskalerrian baiña ez ziran gudari eta gudaketan Luiando'ra eltzen ziranean Zugatz maillatua izaten zan muga, zugatz orretan sartzen zan ezpatea eta andik aurrera ez ziran joaten euskaldunak eta joatekotan ondo ordainduta. Baiña eskubide ori be galdu zan beste lege zar guztiakaz.

MENBAKOAK

Orain gudaritzaren aurrean iru jokabide agertu dira. Batzuk isillik doaz, beste batzuk menbako agertzen dira eta ez dabe onartzen ez gudaritzarik eta ez ordezeko gizarte-lanik. Irugarren taldekoak, gizar-

te-laguntza egiteko gertu dagoz baiña ez izkillu-gudaritza egiteko.

Menbakoak dirala esan dogu talde bat: "Insumisioak". Oneik oso-osoan bake-zaleak dira eta gudaroste guztiak kentzea eskatzen dabe eta eurak ez dabe onartzen gudaritzagaz zer-ikusia daukan ezelako jokabiderik.

Zalantza barik, jokabide garbia da, berez, baiña gaurko mundu onetan eta oraingoz utopikua edo amets utzezkoa iruditzen jaku.

AURKA - BARRUDUNAK

Oneik adin orretan gizarte-laguntza bat eskatzea onartzen dabe, baiña ez iñondik be izkillu-laguntza.

Eta orretarako eurak ateraten daben zioa, euren barrua, kontzientzia da. Euren barruak ez dautse izten iñoz iñon izkilluz ilterik, ez eta izkilluak artzerik. Orretarako batzutan erlejiño-zioak izaten dira, beste batzutan barru edo kontzientzi-zioak.

Jokabide bi oneitan antxiñako igarleak esana onartzen da. Izkillu guztiak golde edo igitai biurtzea nai leukee. Beste era batera esateko, izkilluak egiten eragiltzen diran dirutza ikaragarriak, munduaren aurrerapenerako eta munduan dan gosea kentzeko erabiltea.

AMETSAK

Ederrenak izan arren be, ametsak amets.

Guztion guraria da bakea, guda guztiak uxatzea, alkar-ulertu-eziñak berbaz konpontzea, baiña zori txarrez, gudak eta gudarako arriskuak beti dagoz gugandik urrean, toki baten ez ba'da bestean.

Dana dala, gaurko gazte eta ain gazte ez diranen burubide oneik gizartean zer-pentsau emoten dabe eta mundua obetzeko bide bat dira.

Gizarteak aurrera aundia egiten dauanean, bear ba'da polizirik eta ertzaiñik be ez da bearke.

Noiz izango ete da ori?

Euskaldunai gudak gomutaki txarrak itzi daukuez.

M.O.'EK

BILBAO'KO KAI BARRIA

KONDAIRAN

Bilbao'ko portuak beti izan dau garrantzia.

Gaztelako artulea edo lanea eta beste gauza asko Europa'ra Bilbao'ko portua bide zala el-tzen ziran eta Bilbao'ko portutik joan ziran In-glaterrara gure meatz-gaiak, onein ordaiña zan diruagaz, Laba Aundiak egiteko.

Portu ori dala-ta, Bizkaiak eta Euskalerrriak ospe aundia lortu eban erdiarotik aurrera mundu guztian, euskaldunai Bilbao'ko Bizkai'tarrak emoten jaken izena: "Bizkaino de Bilbao".

GAUR

Baiña kondaira joan zan eta arazoak gaur daukaguz bizi-bizi, erantzuna eskatzen.

Europa'ko azoka aundi orren inguruan, Bilbao'ko portu barria etorkizunerako portu lez artzen da.

Gaurko gurariak beteten ba'dira, eta beteko dirala dirudi, gure kaia Europa osoan lenengo-etarikoa izango da eta mundu guztian be ospetsuenetarikoa.

INDAR BARRIA

Euskalerrria ekonomi-giroan egoera larri baten dagoala ezin ukatu.

Laba Aundiak egiteko gure aberastasun aundia ziran meatz-gaiak saldu jakozan, batez be In-glaterra'r, eta orain ara zer diñoskuen: Europa'k ez dauala bear burdin-lantegirik, emen baiño obeak bertan dagozalako, eta gure burdintegiak, Laba Aundiak be euren artean, alboratu egin bear dirala.

Ortik larri-aldi aundia dator, batez be lanba-koen arazoa larritzen dalako eta gure aberria-rentzat txirotasuna datorrelako.

Lanbide orreri eutsi egin bear jako, aspal-dion sindikatoak aldarrikatzen daben lez, baiña baita ondasun-iturri barri batzuk billatu be.

Ondasun-iturri barri bat, Euskalerrriarentzat indar barri bat, Portu edo kai barria litzake.

EGINBIDE EDERRA

Bilbao'ko portu barriaren eginbidea, zora-garria da, ZER onen azalean agertu_dogun iru-diak pizka bat agertzen dauan lez.

Ekonomi-arloan eta munduaren aurrean izango dan ospearen arloan, txalogarria da kai ori.

Baiña atsegin-baratzean beti izaten da su-geren bat. Nik galdera au egingo neuke: Gure euskaltasuna ta abertzaletasuna indartzeko ala galtzeko bidea izango ete da?

Iparaldeko Euskalerrrian, esaterako, irabaz-bide aundia dira txangolariak edo turistak. Baiña lortu ete dabe ango Euskalerrriaren aurrerapenik? Ez ete dira gaur be ango gazteak kanpora joaten, Paris'era batez be, lanaren billa? Irabazbideak bai ta aurrerapenik ez? zer da ori?

Ez ete dau antzeko zerbait ekarriko gure kai ederrak?

Irakurleak, esan leikee abertzaletasun estua dala ori. Ni pozik oker ba'nengo, baiña geroak izango dau itza.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa